

{ koaderno } **Xabier Izaga**

Ezin gara euren lekuan jarri, ez baitute lekurik

Niri egin didatena ez diote inori egin», esan zuen astelehenean Pablo Casado PPko presidenteak. Ez da zuzena, baina, haren alderdikide eta Madrilgo presidente ohi Cristina Cifuentesi ere oparitu baitzioten master bat. Baina ez, ez zuen horregatik esan, ustezko, balizko maste-rra dela-eta jasaten ari den erasoaz ari zen. Aurreko egunean Gasteizen izan zen, txistu eta oihu artean, Estatu honetan ez dela polizia abusurik egon esate-ko. Jakina, Poliziaren larderiaren biktimarik ez bada-go, ez dago abusurik. Martxoaren 3ko sarraskia ger-tatu zen hirian esan zuen hori. Sanferminetan ere, bere alderdiko presidentetzarako kanpaina egiten ari zela, Iruñean izan zen, baina ez German Rodrí-guezentzat justizia eskatzeko, hain justu, «batasuno-ek» nafarren libertateak eta eskubide demokratiko-ak galarazi nahi dituztela ohartarazteko baizik. Lehe-nago, non eta Altsasun, beste perla bi utzi zituen: «Gora Guardia Zibila!» eta «euskara ez da Nafarroako hizkuntza».

Ez da polizia abusurik izan, gora Guardia Zibila! Elementu horren alderdiak Nafarroako biktimen legea baliogabetzeko eskatu zion

Auzitegi Konstituzionalari eta hark halaxe egin zuen. Izan ere, zertarako nahi dute lege hori, ez bada Esta-tuaren indarren abusurik izan? Beste horrenbeste egin zuen EAEko legegari dagokionez, baina, EAJri es-ker, oraingo Gobernuak kendu egin du aurrekoak ja-rritako helegitea. Hori bai, aldaketa batzuk egitea adostu dute. Ez PSOEk ez EAJk ez dute esan zertan di-ren aldaketa horiek, eta niri burura datorkit Katalu-niako *Estatut* hura garbitu zutenekoa.

Ez nuen Casadoz hitz egiteko asmoa, baina Estatu espainoleko presidentea izan litekeen pertsona izan-da... Hain zuzen, horregatik bete ditut lerrook bera hizpide. Ez presidente espainiarra izan litekeelako, or-

dea, pertsona delako baizik. Halaxe agertu zen joan den astean Algecirasen. Pertsonen ordezkari. Pertsona batek egun batean esan dezake ez dagoela etorkinen-tzako paperik eta hurrengoan etorkin talde bati boste-koa eman, «ni ere pertsona naizelako». Elkartasuna agertuz? Jainkoaren borondatea dela esanez? Edo «ez dut ezer zuen aurka, baina zoazte popatik hartzera» adieraziz?

Zuentzat bostekoa besterik ez dugu, ez dago denen-tzako paperik. Esateko modua da, papera badago-eta. Ez dagoela lekurik esan nahi du. Gu geure lekuan gau-de, eta eurek lekurik ez dutela ulertu behar dute. En-patia apur bat, mesedez, gure lekuan jar daitezela. Guk ez dugu euren lekuan jarri behar, ezin gara jarri, ez dutelako lekurik. Nahiko lan ditugu geure lekuari eusten.

Zuentzat bostekoa besterik ez dugu, ez dago denentzako paperik. Esateko modua da, papera badago-eta. Ez dagoela lekurik esan nahi du. Gu geure lekuan gaude, eta eurek lekurik ez dutela ulertu behar dute

Donald Trumpen estrategia buru ohi Steve Bannon Europara omen dator, hurrengo hauteskunde europa-rrei begira, eskuin muturra batzera. Marine Le Pen, Viktor Orban eta gisako pertsonekin hitz egin du da-goeneko. Ameriketako Estatu Batuen irudi eta antzeko Europa eraikitzea bide da helburua. Europarren lekua babestuko duen Europa eraikitzea. Etorkin izango di-renen lekuak ustiatu eta txikituko dituen Europa. Haien lekuak xehatu, bai, txikitu... lekurik gabe utzi arte. Europaraino iristeko ausardia dutenei bostekoa emango diegu, baina jar daitezela gure lekuan, ulertu dezatela ez dutela lekurik.

Badator Bannon. Berandu etorri ere. •